

NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA  
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ika

# ETXETIK PLAZARA

*iki...*

**KOMIKI...**

*li... klik*

**SARIA:**  
**LESAKAKO**  
**LINDDURRENBORDA**  
sagardotegian  
bi lagunentzako  
otordua

2021eko OTSAILA

171. ALEA

# IZENAK IZAN

Ale honetara, estimu handian dugun pertsona bat ekarri nahi izan dugu, urte luzez, bera aritu baita Etxetik Plazara aldizkaria maketatzen: Joseba Larratxe irundarra. Arkitektura ikasi zuen arren, lanbidez komikigilea eta ilustratzailea dugu. Joana Maiz eta Basolatik Berri Onik ez dira Josebaren azken komikiak, eta bigarren hori da, preseski, 2020ko akaberan argitaratu duen azken lana.

Beraz, komikigilearekin elkartu gara, eta bere bizia zein komikigintzari buruzko hainbat kontu galdetu dizkiogu.

Zer kontatzen duen jakin nahi? Hementxe duzu, bada, elkarrizketa!

## JOSEVISKY



### **1. Izenak izana dakarrela erraten da. Zuk, Joseba Larratxe edo Josevisky, bi izen dituzenez, bi izan al dituzu?**

Gustura esango nuke txikitan arkatzez beteriko pertza magiko batera erori nintzelako egunez Joseba Larratxe eta gauzez Josevisky naizela. Baina ez, 27 lehengusutan gazteena naiz eta munduko ezizen guztiak jarri zizkidaten: Joxe, Joxebita, Joxeba... eta Joxebixki. Hortik hasi zitzaizkidan lagunak ere Josevisky esaten, eta horrela geratu nintzen.

### **2. Txikitan, zein komikitako pertsonaia izan nahi zenuen? Eta orain, pertsonaia bat izan beharko bazina, zein aukeratuko zenuke?**

Nire belaunaldi osoak bezala, txikitan Son Goku izan nahi nuen. Hegan egin, eskuetatik su-bolak bota eta abenturaz abentura ibili. Heldu ahala, ordea, gero eta komiki ilun eta tragikoagoak irakurtzen joan naiz eta ez nuke nahi komiki hauetako protagonisten azalean egon... Beraz, dudarik ez: gaur egun ZAKILIXUT izan nahiko nuke. Egun osoa ohean botata filosofatzen.

### **3. Zer egitasmo dituzu orain bertan esku artean?**

Eleberri grafiko berri batean nabil lanean, baina oraindik ez nuke xehetasun gehiegi eman nahi, zorte txarra ematen du eta. Esan dezakedan gauza bakarra da biografia bat dela eta sona handiko idazleekin nabilela lanean. Horretaz aparte, zendutako H28 hilabetekari saretirikoa berpiztu berri dugu. Oraingoan, hilabetekariaren formatoa alde batera utzi eta sare sozialetan zabalduko ditugu marrazkiak, egin ahala.

### **4. Zer erranen zenioke komikiak haurrentzat bakarrik direla uste duenari?**

Hasteko, ongietorria emango nioke XXI. mendera! Eta gero esango nioke joateko komiki-denda batera. Seguruenik ez luke topatuko haurrentzako komikirik. Komiki gehienak nerabe, gazte eta helduentzat dira. Nire gurasoen haurtzaroan bai, orduan komikia gaztetxoan denbora-pasa orokortua zen, Capitan Trueno eta horrelako tebeoekin. Gure garaian, telebista izan zen eta gaur egun bideo-jokoak dira denbora-pasa ohikoena. Komikilariok jendeari ulertarazi behar diogu komikia ez dela genero literario bat, baizik eta medio bat, zinema edo teatroa den bezala. Horregatik, komiki batek edozein modutako istorio bat kontatu dezake. Badaude zientzia-fikzio komikiak, fantastikoak, historikoak, erromantikoak, beldurrezkoak, biografiak, elkarrizketa marraztuak, komiki-kazetaritza... Uste baduzu komikia medio bezala ez duzula maite, gehiegi saiatu ez zaren seinale.



## **5. Komikien munduan murgildu nahi duen helduari, zer bide edo zer lan gomendatuko zenizkioke?**

“Eleberri grafikoetara” joko nuke. Komiki formatu jakin bati esaten zaio horrela: liburu forma izaten dute, ez Tintin bezalako albumena, eta tomo bakarrean hasi eta bukatzen den istorio bat kontatzen dute. Adibide zehatzago batzuk Frederik Peeters-en Pilula Urdinak, Paco Roca-ren Etxea edo Yurre Ugarte eta bion Joana Maiz izan daitezke. Komiki hauek, jorratzen dituzten gaiengatik, irakurle helduentzat eginak dira.

## **6. Zein da euskal komikigintzaren egoera gaur egun?**

Munduan badira komikia lehen lerroko artetzat duten lurraldeak. Hala nola: Japonia, Frantzia, Belgika edo Estatu Batuak. Baina zoritxarrez Euskal Herrian ez du horrelako garrantzirik eduki. Seguruenik, euskara berreskuratu nahian, letrari irudiari baino garrantzia handiagoa eman diogu eta ez da inoiz komikiaren industriarik sortu hemen. Horregatik, ez daukagu bertako estilo edo eskolarik, Manga Japonian edo super heroiak Estatu Batuetan dauden bezala. Hala ere, berebiziko garrantzia izan duten egile bikainak ditugu: Antton Olariaga, Mattin, Zaldi Eroa edo Asisko gabe, ez dut uste nire belaunaldia komikiak euskaraz marrazten ariko zenik.

Zorionez, azken 20 urteetan komikiak gorakada garrantzitsua izan du mundu mailan. Irakurle berrietara iristea lortu du medioak, hein handi batean, komikietan jorratzen diren gaien dibertsifikazioari esker. Beranduago bada ere, gorakada hau iritsi da Euskal Herrira ere, eta Xabiroi aldizkariaren lan jarraiak izan du zerikusia horretan, dudarik gabe. Azkeneko 3 urteetan inoiz baino komiki gehiago kaleratu dira euskaraz. Beraz, indar betean gaudela esan dezakegu

## **7. Egungo gizarte-egoera berezi honek zakarki kolpatu du kulturaren mundua. Zuk ere horren eraginik nabaritu al duzu?**

Bestela ere marrazkilariak egunerokoan nahiko konfinatuta bizi gara eta, egia esan, pandemiak ez gaitu beste kultura-sektore batzuk bezain gogor kolpatu. Marrazketa tailerrak, irakurketa klubak eta komiki aurkezpenak bertan behera utzi behar izan ditugu, baina beldur handiagoa ematen digute etorkizunean egon daitezkeen kultur arloko murrizketek.

## **8. Zer komiki oparituko zenioke lagun on bai? Eta etsai bati?**

Gezurra badirudi ere, komiki bera oparituko nieke biei: Asisko Urmenetaren edozein komiki. Euskaldunon historia ezkutatua azaleratzeko izugarritzko lana egiten ari da Asisko. Kaleratu berri duen Sugarren Mende eleberri grafikoan XVI. mende amaierako sorgin-ehizaz mintzo zaigu. Benetan lan interesgarria da kolpeka sinestarazi dizkiguten gezur mordoak gainetik kentzeko. Gomendatuko nieke lagunei, konturatu gaitzen garai batean alegiazko sorginkeriatatik kondenatzen gintuzten bezala kondenatzen gaituztela gaur egun taberna-istilu batzuegatik. Eta etsaiei, jakin dezaten ez ditugula haien gezurrak irensten.

# LAN eta LAN

Joseviskyri egindako elkarrizketa gustagarri eta interesgarri hau ongi ulertu ote duzun jakiteko, sei galdera prestatu ditugu. Ea ongi erantzuten dituzun!

1. Nola du izena Joseviskyk 2020ko bukaeran argitaratu duen azken lanak?  
.....
2. Txikitan zer komikitako pertsonaia izan nahi zuen? Eta orain zer pertsonaiarekin identifikatzen da?  
.....
3. H28 hilabetekari saretirikoa berpiztuta eta hilabetekoaren formatua alde batera utzita, nola zabalduko dute hemendik aurrera?  
.....
4. Komikigileentzat, komikia ez da genero bat. Zer da Joseviskyren ustez?  
.....
5. Zer gomendio ematen dio Josebak komikien munduan murgildu nahi duen helduari?  
.....
6. Zer komiki oparituko lioke lagun on bati eta etsai bati?  
.....

Bertzalde, elkarrizketak atzizki batzuk lantzeko tartea ematen digunez, aukera aprobeztatuko dugu.

Lanbideak sortzeko, **-le**, **-ari**, **-lari**... atzizkiak erabiltzen ditugu, eta jarduerak adierazteko, berriz, **-gintza**, **-kuntza**... atzizkiak. Elkarrizketan, komikigile, ilustratzaile hitzak agertu zaizkigu. Ondorengo bi zutabe hauetan, ezkerrekoan pertsonen lanbideak jarri ditugu, eta eskuinekoan, aldiz, jarduerak. Horietako batzuk kendu egin ditugu, zuk osa ditzazun.

## LANBIDEAK

KOMIKIGILE

1. \_\_\_\_\_

GOZOGILE

3. \_\_\_\_\_

BERTSOLARI

MARRAZKIGILE

6. \_\_\_\_\_

ANTZERKIGILE

8. \_\_\_\_\_

## JARDUERAK

KOMIKIGINTZA

SORKUNTZA

2. \_\_\_\_\_

MAKETAGINTZA


4. \_\_\_\_\_

5. \_\_\_\_\_

ZAPATAGINTZA

7. \_\_\_\_\_

GAZTAGINTZA



# BITXILOREAK

## EUSKAL KOMIKIGINTZA

Josebak zenbait komiki aipatu dizkigu bere elkarrizketan. Atal honetan, hortaz, gomendatutako lan horietako batzuk ekarri ditugu; horien deskribapen ttiki bat harrapatuko duzue lerrootan. Baina, noski, euskara pixka bat lantzeko aprobeztatuko ditugu testuak. Ongi erreparatzen baduzu, erlatiboazko modu ugari antzeman ahal izanen dituzue deskribapenetan. Forma horiek lantzeko asmoz, testuetatik kendu ditugu, eta hemen beheitian paratu dizkizugu zuk zeronek dagokien lekuan koka ditzazun. Zorte on!

**ERNE, SARIRAKO!!**

дутен  
dituen  
dituen

zen  
den  
duen

dituen  
dituen  
zituzten



### BASOLATIK BERRI ONIK EZ


Josevisky eta Asisko Urmeneta komikigileen eskutik, Orbaizetako parajeak biltzen \_\_\_\_\_1\_\_\_\_\_ komiki interesgarria dugu honako hau.

XVIII. mendean kokatzen da istorioa, beraz, garai hartako bizimodu latzaren nondik norakoak agerian gelditzen dira lan honetan. Horretarako, mitologiatik edaten \_\_\_\_\_2\_\_\_\_\_ mundu fantastikoa eraiki dute egileek. Gainera, pertsonaiek erabiltzen \_\_\_\_\_3\_\_\_\_\_ euskara azpimarratzeko modukoa da; izan ere, euskalki eder batean solastatzen dira.



### JOANA MAIZ

Hemen ere Joseba Larratxe tarteko, Yurre Ugarte idazlearekin batera, gai sozialak ardatz \_\_\_\_\_4\_\_\_\_\_ komikia dugu Joana Maiz. Izen bereko pertsonaiaren bueltan eraikitzen \_\_\_\_\_5\_\_\_\_\_ istorioa harrapatuko dugu lan honetan. Hala, hizpide dituzte honako hauek: krisi existenziala, etxegabetzeak, adiskidetasuna, elkartasuna, feminismoa... Hortaz, egungo gizarte-ereduak bete-bete harrapatzen \_\_\_\_\_6\_\_\_\_\_ hainbat gai harilkatzen ditu komikiak.



### SUGARREN MENDE

Berriki argitaratua, Asisko Urmeneta komikigilearena dugu lan hau; XVI. eta XVII. mendeetan, Nafarroan burutu \_\_\_\_\_7\_\_\_\_\_ sorgin-ehiza du hizpide. Garai hartako testuinguru historiko eta geografikoan oinarritzen da egilea, bortizki zigortu \_\_\_\_\_8\_\_\_\_\_ herritarren bizipenak kontatzeko. Historia ofizialak aipatzen ez \_\_\_\_\_9\_\_\_\_\_ hainbat esperientzia, tragedia eta pasarte aurkituko ditugu istorio honetan. Bide batez, gaiari buruz hausnartzeko aitzakia polita emanen digu Asiskoren lan honek.

## EUSKARA BATUA

“Komikilariok jendeari ulertarazi behar diogu komikia ez dela genero literario bat, baizik eta medio bat, zinema edo teatroa bezala”. Josebak errandako esaldi hori azpimarratu nahi dugu. Mediaoa den neurrian, era askotako komikiak badira eta komikia ere helburu aunitzetarako erabiltzen dela badakigu. Ale hau osatzeko, Euskaltzaindiak bere 100. urteurrenaren harira egindako komikiaren zatitxo bat plazaratuko dugu. Hitz batzuk itzalezatatu ditugu, eta behean hitz horiei dagozkien sinonimoak ipini ditugu. Zure lana, parekatzea.

..... aldean

..... franko

..... pauso

..... esperoan

..... gelditu

..... bilkurak

..... deliberazioak

..... zirt edo zartekorik

..... bildutasunerako

..... beharrean

..... hain zuzen ere

..... iniziatibaz

EZIN GARA BESOKA GURUTZATUTA  
EUSKALTZAINDIK EGINO DUENAREN  
ZAIN(1) GERATU(2), ARGI BAITAGO EZ DELA  
EUSKARAREN BATASUNERAKO(3) LANEAN(4)  
URRATS(5) ERABAKIGARRIRIK(6) EGITEN.

BANIA AKADEMIK FRANKISMOAREN BEGIRADAPEAN EGITERIK EZ ZUENA  
MUGAZ BESTALDEAN EGITEN HASI ZIREN EUSKALTZALE BATZUK, BAIONAN  
ZEHAZKI(7), TXILLARDEGIREN EKIMENEZ(8), 1963AN: EUSKARAREN  
BATASUNERAKO ERABAKIAK(9) HARTZEKO BILERAK(10).



ENEKO IRIGARAI, TXILLARDEGI, TELESFORO MONZON, JESUS SOLAUN,  
JEAN-LOUIS DAVANT, ROGER IDIART, PIERRE ANDIAZABAL ETA JEAN  
HIRIART-URRUTI BILDU ZIREN GEHIENETAN, BAINA LAGUNTZAILE  
ASKO(11) IZAN ZITUZTEN INGURUAN(12): JESUS MARI BILBAO,  
PIARRRES LAFITTE, ENAUT ETXAMENDI, JULEN MADARIAGA, MARIJANE  
MINABERRI, JANAMARI MALHARIN, MARTXELIN ARBELBIDE, MADALENA  
JAUREGIBERRI, ETXELET, JONE FORKADA...



# ERANTZUNAK



## LAN eta LAN (4. or.):

GALDERAK: 1.- Basolatik Berri onik ez; 2.- Txikitan Son Goku. Orain Zakilixut. ; 3.- Sare sozialetan zabalduko dituzte marrazkiak, egin ahala.; 4.- Medio bat, zinema edo antzerkia den bezala.; 5.- Eleberri grafikoekin hasteko.; 6.- Komiki bera oparituko lieke, Asisko Urmenetaren edozein komiki.  
ATZIZKIAK: 1.- sortzaile; 2.- gozogintza; 3.- maketagile; 4.- bertsolaritza; 5.- marrazkigintza; 6.- zapatagile; 7.- antzerkigintza; 8.- gaztagile.

## KOMIKLIK (6. or.):

1- esperoan; 2- gelditu; 3- bildutasunerako; 4- beharrean; 5- pauso; 6- zirt edo zartekorik; 7- hain zuzen ere; 8- inizatibaz; 9- deliberazioak; 10- bilkurak; 11- franko; 12- aldean

## 170. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK (5. or.):

1- c; 2- a; 3- c; 4- b; 5- a; 6- b; 7- a; 8- b; 9- c; 10- b; 11- a; 12- c

## ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

### SARIA:


**Lesakako LINDDURRENBORDA**  
sagardotegian  
bi lagunentzako otordua

170. aleko irabazlea:

**Eduardo Machicote Goñi**  
Berakoa

## **ETXETIK PLAZARA liburua, DEBALDE!!**

**Eska ezazu,  
Bortzirriak, Malerreka eta Leitzaldeko  
IKA euskaltegietan**



OHARRA: erantzunak otsailaren 26a baino lehen bidal itzazu.



## **SARIRAKO ARIKETA**

**BITXILOREAK (5. or.):**

1 - _____	4 - _____	7 - _____
2 - _____	5 - _____	8 - _____
3 - _____	6 - _____	9 - _____

EP 171 (2021/02)




**ika**

euskara errazago egiten



# ZATOZ EUSKARAREN gimnasiaora!!



Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta  
Malerrekako IKA  
Euskaltegiak**

Marrazkiak:

**Joseba Larratxe**

Diseinua eta maketazioa:

**Raul Garcia Etxeberria  
Mathilde Brugiere-Garde**

Laguntzaileak:

**Nafarroako Mendialdeko  
EUSKARA  
MANKOMUNITATEAK**

**euskara INDARTU nahi duzu?  
ZATOZ euskaltegiko GIMNASIORA!!**

**zeure herrian,  
ekainera arte,  
astean 4 orduz,**

**MAILA GUZTIAK**

**%100 DIRUZ lagundua!!**

**Matrikula zaitez:**

**IKAbortziriak, 948 637 796, [bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus)**

**IKAmalerreka, 948 451 555, [malerreka@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:malerreka@ikaeuskaltegiak.eus)**

 **euskara  
errazago  
egiten**

**Laguntzaileak:**

**MALERREKAKO EUSKARA  
MANKOMUNITATEA**

 **BORTZIRIETAKO  
EUSKARA  
MANKOMUNITATEA**

 **euskarabidea**

## ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefonoa:..... Adina:.....

### HORRA GURE HELBIDEAK

**Bortziriako IKA Euskaltegia.**  
Arretxea 22, 31770 Lesaka.  
[bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus)

**Malerrekako IKA Euskaltegia.**  
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.  
[malerreka@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:malerreka@ikaeuskaltegiak.eus)

  
**ika**